



MAIALEN ARTEAGA  
KAZETARIA

## Etxe bat?

“Udazkenaren ertz batek, maitia, eman dizkit egun onak gure leihotik”. Horrela dio Gorka Urbizuk *Hasiera bat* izeneko bere lan berriko *Etxe bat* kantuan. “Bina plater jartzeko esan dit amak, egongelan bazkalduko dugula”. Hain justu, kantu horretan orain arte idatzi ez duen tokiren batetik idatzi duela aitortzen dio Urbizuk Uxue Rey kazetariari *Berrian* egindako elkarrizketan, oraingo honetan letrak nondik idatzi dituen galdetzerakoan. Kantu hori azpimarratzen du: “Uste dut nire lehengo estiloa asko nabaritzen dela. Aldiz, ikusten dut *Etxe bat*, eta hor bai ikusten dudala badagoela beste zerbait”. Epel, goxo, arrunt, baina berezi deskribatzen du Urbizuk etxe hartan gertatzen dena. Beste edozein etxetan ere gerta liteke, etxerik izanez gero, noski.

Gorka Urbizuren azken lanak erakutsi bezala, *Etxe bat Hasiera bat*-en parte da. Diskoan, zein bizitzan. Bizi proiektua garatzeko ezinbesteko bitartekoa da. Baina ezin hasiera bat idatzi soldataren erdia baino gehiago alokairua edo hipoteka ordaintzera bideratzen baldin bada. Edo putre funtsek luxuzko etxeak egiteagatik, zein etxe turistikoen masifikazioa dela eta, zure herritik alde egitera kondenatuta baldin bazaude. Azken batean, Donostiako alkateak esan zuen bezala “eskisitoa” izatea omen da egun

norbere auzoan bizi nahi izatea (Donostia Espainiako Estatuko hiririk garestiena da, 5.326 euro balio ditu metro koadroak, iaz baino %3,6 garestiagoa da). Hego Euskal Herriko gainontzeko herrialdeen batez besteko kopurua ere beldurgarria da, eta Ipar Euskal Herriko egoera ere ez da xamurragoa. Argazkia antzerakoa da alokairuan ere. Putre habiak eraikitzen ari zaizkigu etxebizitzak eraikitzen ari direlakoan, eta akaso, postaletarako Euskal Herri polita gelditzen ari zaigu, baina euskal herritarrontzat ez da bizigarria den postalik. Geroz eta gauza gehiago dira “eskisitoak” orain hemen: etxebizitza, elikagaiak, argindarra... Ekuazioa honelako zerbait da: herritarrak pobreagoak eta “eskisitoagoak” gara, eta aberatsak, aberatsago.

Gaztelagun edo Emanzipa bezalako dirulaguntza programek ekarpena egin, egiten dute, baina ekarpena egiteagatik arazoa konpontzeko neurririk hartzen ez bada, ekarpenak ezer gutxirako balio du. Merkatu librearen logika irauli eta etxebizitza publikoetan inbertitu beharra dago, politika publiko ausartak ezarri, Euskal Herrian lan eta bizi nahi baldin badugu (duin lan eta duin bizi, behintzat). Eta horrela, akaso, “etxe bat” hasiera bati ekiteko baieztapena izango da, erantzunik gabeko galdera baino lehenago. ●

## Kaseteak



CASTILLO SUÁREZ  
IDAZLEA

Iaz Braham bat ezagutu nuen Delhin. Harritu ninduen garagardoa maite zuela eta gaztelaniaz bazekiela. Nire adintsuko zela esango nuke, baina makil baten laguntzaz ibiltzen zen, poliki. Ea zergatik zekien gaztelaniaz, galdetu nion, eta berak umetan Julio Iglesiasen kaseteak entzuten zituelako ikasi zuela esan zidan. Hasieran gauza erraza izan zela gaztelaniaz ikastea. Hasieran hizkuntza guztiak dira errazak ikasten. Musikak noraino eraman gaitzakeen pentsatu nuen hotelerako bidean. Eta burutara etorri zitzaidan mutil gazte kolonbiar bat, Berri Txarraken *T-shirt*-arekin etorri zitzaidana euskara ikaste-

ko dirulaguntza eskatzera. Aspertuko zela pentsatu nuen, ikaskideak erretiratuak zeudelako guztiak, eta ez zutelako jakingo Berri Txarraken kanta bakar bat ere. Baina udan ikusi nuen, jubilatuekin, garagardo bat hartzen. Pozik zegoela ematen zuen. Eta jarraitzen du euskara ikasten. Pasadizoak burutara etorri zaizkit Jurgi Ekizaren elkarrizketa bat irakurri dudanean: “Negu Gorriak taldea da musikari eta euskal musikari bilakatzeko gogoia piztu zidan proiektua.” Eta ikastolako autobusean txoferrari ematen genizkion Negu Gorriaken kaseteak non ote ditudan pentsatzen jarri naiz. ●